

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko urtarrilaren 16tik urtarrilaren 20rako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

ASTE HONETAN MERKATUETAN

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI EUROGUNEA



Datuaren analisia


Eurogunean, urte arteko inflazio-tasa % 1,1ekoa izan zen abenduan, azaroan baino puntu erdi gehiago, eta beraz, bere mailarik onena 2013ko irailetik. Energiaren eta elikagai freskoen prezioen gorakako bultzadaren ondorioz eman da igoera hau, Eurostat batasunaren estatistika-bulegoak baieztatu duen moduan. 2014ko ekainetik eurogunean ematen den energiaren prezioen lehenengo urte arteko igoera izan da. Gauzak horrela, energiaren eta elikagai freskoen prezioen eragina kontuan hartu gabe, azpiko inflazioa % 0,9ra igo zen, aurreko hileko % 0,8tik.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarriko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ZEW ALEMANIA



Datuaren analisisia

Alemaniako ZEW Institutuaren urtarrileko sentimendu ekonomikoa 13,8tik 16,6ra igo da, nahiz eta 18,4ra iristea espero zen. Hobekuntzak, funtsean, oraingo egoeraren osagaia zuen oinarri, 63,5etik 77,3ra egin baitzuen gora (2011ko erdialdetik ikusten ez zen datua), eta kasu honetan, espero baino hobea zen. Bere aldetik, euroguneko ZEWa 23,2ra igo zen aurreko 18,1etik, merkatuak 24,2raino heltzea espero bazuen ere.

“ZEWren inbertsio-konfiantzaren adierazlearen igoera arinaren atzean, funtsean, Europako herrialdeetako egoera ekonomikoaren hobekuntza dago”, Achim Wambach ZEWko presidentearen esanetan. “Alemaniak 2016an izan dituen hazkunde-tasak eta euroguneak azaroan izandako ekoizpen industrialaren datuak askoren harridura eragin du”, gehitu zuen Wambachek.

Adierazlearen azalpena

Alemaniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen “sentimendu ekonomikoa” islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EBZren HILEKO BILERA



Datuaren analisia

EBZk tasa ofizialak bere horretan mantendu ditu, espero zen moduan: birfinantzaketa-tasa % 0an mantendu du eta gordailuena $-\% 0,40$ an. Diru-agintaritzak gordailu-tasatik beherako aktiboen erosketa baieztatu zuen, baina sektore publikoarekin loturikoa besterik ez. EBZren agintari nagusiaren arabera, inflazioaren presioak nahiko mugatuak dira eta energiaren errebotea dute motor bakar. Haren iritziz, azpikoak ez dauka oraindik epe motz eta ertainean politiken aldaketa bat justifikatzeko pisu nahikorik. Mario Draghi berrero adierazi du eskura dituen tresna guztiak erabiliko dituela EBZren helburuak lortzeko, eta pizgarriak murrizteko eztabaida bat egon zenik ukatu du. Hala ere, datozen hiruhilekoetan inflazioak bultzada handiagoa izatea espero du, eta 16ko 4Hn BPGd-aren hazkunde pixka bat handiagoa aurreikusten du.


Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak bultzatu beharko ditu ere, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisia

Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) % 0,3 hazi zen abenduan, eta urte arteko inflazioa % 2,1ekoa izan zen 2016aren amaieran, 2011tik izandako tasarik altuena. Abenduan, energiaren prezioek % 1,5 egin zuten gora, eta horrekin, iazko iguera metatua % 5,4raino igo zen; elikagaiak bere mailari eutsi zioten seigarren hilabetez jarraian, eta 2016 osoan % 0,2 egin zuten behera. Elikagaien eta energiaren prezioak aintzat hartu gabe, horiek baitira hegazkorrenak, azpiko KPIak % 0,2 egin zuen gora abenduan, eta urte arteko datua % 2,2koa izan zen, hamarren bat aurretiko txostenaren gainetik.


Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisa

Industria ekoizpenak % 0,8 egin zuen gora iragan abenduan, eta beraz, 2016ko iguera % 0,5ekoa izan zen. Abenduko % 0,8ko iguerak, bi urtetan eman den handienak, aurreko hilean eman zen % 0,7ko jaitsiera orekatzeko balio izan du (% 0,4tik gorantz berrikusitako datua). Abenduan, industria ekoizpenean eman diren aurrerapenik handienak energia eta zerbitzu publikoen ekoizpena eta hornidura industrietan eman da, % 6,6ko hazkundearekin; manufakturek, aldiz, (kopuru osoaren % 70) % 0,2 egin zuten gora, eta meatzaritzan ez zen aldaketarik eman.


Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisa egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BPGd



Datuaren analisia

2016an, Txinako ekonomia % 6,7 hazi zen, 2015ean baino bi hamarren gutxiago, baina Gobernuaren helburuaren goiko aldean kokatuz, urte hasieran hozte handi baten aurrean zeuden beldurrak uxatzeko erabili ziren pizgarri handiagoei esker. Estatistiken Bulego Nazionalaren datuen arabera, kontsumoak % 64,6ko ekarpena egin zion Txinako BPGd-aren hazkundeari. Sektoreen arabera, hirugarren sektorea Asiako erraldoiaren hedapen ekonomikoaren buruan egon zen berriro, iaz urte arteko % 7,8ko igoerarekin, industriaren (% 6,1ekin) eta nekazaritzaren (% 3,3) gainerik. Inbertsioek eta esportazioek indarra galdu zuten, eta kontsumo pribatuak bultzatu zuen ekonomia.

Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Txinak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
01/23	Japonia	CI lider indizea	--
01/23	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
01/24	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
01/24	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	--
01/24	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	--
01/24	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	--
01/24	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	54.0
01/24	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitza salmenta	5.52m
01/24	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza salmenta	-% 1.7
01/24	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	--
01/25	Japonia	Balantza komertziala	¥358.0b
01/25	Frantzia	Enpresen konfiantza	--
01/25	Espainia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
01/25	Alemania	IFO enpresen egoera	--
01/25	Alemania	IFO aukerak	--
01/25	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
01/25	Estatu Batuak	FHFA MoM etxebizitza prezioen indizea	% 0.3
01/26	Japonia	YoY IPP zerbitzuak	--
01/26	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	--
01/26	Espainia	Langabezia tasa	--
01/26	Italia	Urte arteko xehhekako salmentak	--
01/26	Erresuma Batua	Urte arteko BPGd	--
01/26	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
01/26	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
01/26	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
01/26	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	-% 1.2
01/26	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
01/27	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.2
01/27	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	--
01/27	Espainia	Urte arteko xehhekako salmentak	--
01/27	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.1
01/27	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 2.0
01/27	Estatu Batuak	Sentimendua Michigango Unibertsitatea	98.0
01/27	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
01/27	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	--
01/27	Alemania	Urte arteko xehhekako salmentak	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Aste honetan, agenda politikoak bereganatu du Atlantikoko bi aldeetako inbertsiogileen arreta, eta tonu positiboko datu makroak bigarren plano batean geratu dira. Erresuma Batuan, Brexitari buruz hitz egiteko agerraldi batean, lehen ministro britainiarrak Europar Batasunarekin akordio komertzial bat lortzeko beharra azpimarratu zuen berriro, merkatu bakarreko kide bezala ez bada ere; eta horrez gain, parlamentuan Brexita bozkatu dela baieztatu zuen. Azken albiste horrek merkatuak baretu zituen. Bestalde, EBZren hileko bileran, Draghik tonu lasaia erabili zuen, eta ez zen nobedade handirik egon. Merkatuetan, beraz, ez zen ia mugimendurik eman. Azkenik, Europako burtsak itxi ondoren, ostiralean Donald Trumpek AEBetako presidente kargua hartu zuen. Lehenengo hitzaldian argi utzi zituen bere asmo protekzionistak. Hartara, Munduko burtsetan zuhurtzia izan zen nagusi. European saldo negatibo samarrarekin itxi zuten burtsek, pixka bat beherako joerarekin AEBetan, jarrera mistoarekin Asian eta maila lauan gorakorretan oro har.

ERRENTA FINKOIA:

Tasek gora egin dute zor publikoko merkatuetan. European, inbertsiogileek ez zioten arretarik jarri Draghiren diskurtsoari, baina bai inflazioaren gorako joeraren baieztapenari. Gainera, Belgikan eta Italian hainbat jaulkipen sindikatu eman ziren, dagoeneko zegoen zorraren errentagarritasuna handitu zutenak. Arrisku-primei dagokienez, Espainian bere horretan mantendu zen bitartean (108 op), Italian, DBRS ratingaren murrizketaren ondoren, ia 160 op-etaraino igo zen. AEBetan, KPlaren datuak igoera handiagoak egiteko bidea erraztu zion Fed-i. Yellen Diru-erakundearen presidentearen hitzek ere lagundu zuten horretan, diru-politika zorrotzago baten alde agertu baitzen, nahiz eta pixkanaka izan. Kreditua egonkor egon zen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisen merkatuan, libera izan zen protagonistarik handiena. Inbertsiogileek hasiera batean "Brexit gogor" baten inguruan egiten zuten irakurketa lasaitu egin zen ondoren, Parlamentuan onartu beharko delako. Horrek dibisa ingelesari lagundu zion. Bestalde, AEBetako presidente berriak dolarra maila oso altuetan dagoela esateko egin zituen adierazpenek inflazioaren datuek baino pisu gehiago izan zuten, eta beraz, dollarrak indarra galdu zuen euroaren aldean, yenak bezala. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioak bere mailan itxi zuten astea, nahiz eta hainbat mugimendu garrantzitsu egon ziren. LPEEk ekoizpena murriztu zuen abenduan, baina 2017an eskaintzaren superabita emango dela aurreikusten du.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
MSCI WORLD (Local)	1.379,23	-0,67	1,10
IBEX 35	9.385,40	-1,33	0,36
DJ EURO STOXX 50	3.299,04	-0,76	0,26
DJ STOXX 50	3.012,01	-1,15	0,05
FTSE	7.203,43	-1,83	0,85
S&P 500	2.274,15	-0,02	1,58
Dow Jones	19.832,3		
NASDAQ	1	-0,27	0,35
	5.559,75	-0,26	3,28
	19.137,9		
NIKKEI 225	1	-0,77	0,12
	49.146,4		
MSCI EMERGENTES (Lo	7	0,01	3,14
	46.282,6		
MEXBOL	7	0,22	1,40
	64.499,9		
BOVESPA	4	1,33	7,09
SHANGHAI	3.270,33	0,34	0,64
Rusia Rts Moscú	1.138,99	-1,66	-1,16

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	% Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,67	0,04	0,10
ESPAINIA 2 URTE	-0,28	0,01	0,00
AEB 2 URTE	1,21	0,02	0,02
ALEMANIA 10 URTE	0,43	0,09	0,22
ESPAINIA 10 URTE	1,51	0,08	0,13
AEB 10 URTE	2,51	0,11	0,06
ALEMANIA 30 URTE	1,21	0,11	0,26
ESPAINIA 30 URTE	2,83	0,09	0,21
AEB 30 URTE	3,08	0,09	0,01

Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	68,88	-0,07	-3,16
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	285,20	-3,06	-3,50

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Dolarra / Euroa	1,07	0,23	1,41
Yena / Euroa	122,92	0,83	-0,07
Libera / Euroa	0,87	-0,93	1,43

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2017ko % Ald
Petrolio (Brendt)	55,13	-0,02	-0,51
Urrea	1.201,35	0,31	4,26

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.